

Espedientearen kodea: 2022ID340001

Espedientearen gaia: Oñartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantzaren aldaketa.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

Maria Victoria Joaristi Olariaga, Oñartzungo Udalaren idazkari naizenak:

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2022/06/29n, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

“OIARTZUNGO UDALAK EMATEN DITUEN DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEA.

Herri bizitzan eta baita ekonomian duten garrantziarengatik kultura, euskara, kirola, gizarte zerbitzuak, gazteria, ingurumena eta landa garapena, hezkuntza, parte hartzea, hirigintza, etxebizitza eta berdintasuna arloak, besteak beste, babestu behar direla ulertuta, Udalak, interes orokorraren izenean, diruz lagundu behar dituela irizten du. Hortik abiatuta, Udalaren eta laguntza horien onuradunen arteko harremanak egituratzeko edota arautzeko zuzenbide-esparrua ezarri beharrari erantzuteko, “Oñartzungo Udalak ematen dituen dirulaguntzak arautzeko Ordenantza” bideratu zen. Aipatu Ordenantza behin betikoz onartuta, 2018ko azaroaren 30eko 231 zenbakiko Aldizkari Ofizialean bere osotasunean argitaratu zenetik dago indarrean.

Geroztik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta baita Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak bere osotasunean indarrean sartu direnean, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste edozein administrazio egindakoak ez aurkezteko; eta administrazioak eskatu edo kontsultatu ahal izango ditu agiri horiek, modu elektronikoan administrazioen arteko sare korporatiboen bidez, beti ere, interesdunak horren aurka egiten ez badu. Hau da, administrazioek elkarreragingortasunez jardun behar dute haien artean.

Euskadiko eredia Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoaren (NISAE) inguruan egituratzen da. Beraz, ezinbestekoa da udal ordenantzak NISAEren funtzionamenduari bat egitea, norgehiagoka prozedura bidez esleitu beharreko prozesuetan eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioari dagozkion artikulak moldatuz.

Bestalde, otsailaren 18ko Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasuna arautzen zuen 4/2005 Legeak aldaketa sakonak izan ditu, martxoaren 3ko 1/2022 Legearen onarpenarekin gaurkotu direnak. Besteak beste, lege aldaketa honek Euskal botere publikoek, oro har, dirulaguntza publikoetan genero-ikuspegia txertatzera behartzen ditu, eta, arau eta oinarrien artean, berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak sartu behar dituztela jasotzen du balorazio-irizpideetan eta pertsona fisiko edo juridiko onuradunen betebeharretan.

Aspektu guzti hauek kontutan hartuta, udal zerbitzu juridikoak “Oñartzungo Udalak ematen dituen dirulaguntzak arautzeko Ordenantzaren aldaketa” dokumentua landu du eta aldi berean, herritarrek eta orohar eragileek ekarpenak egiteko aukera izan dezaten, aurretiazko kontsultaren tramitea ireki da ekainaren 9tik 27ra.

Idazkariak, Berdintasun teknikariak eta kontu-hartzaileak gaiari buruz txostena idatzi dute eta horien baitan, Ogasun, Kontu Berezien eta Hainbat Gaien Batzordeak, 2022ko ekainaren 21ean egindako bilkuran, aldeko diktamena eman dio dokumentuaren onarpenari.

Guzti hau kontutan hartuta, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

“Oiartzungo Udalak ematen dituen dirulaguntzak arautzeko Ordenantzaren aldaketa” dokumentua, eranskinean jasota dagoen moduan, hasieraz onartzea.

Era berean, aipatu dokumentua eta dagokion espedientearen jendaurrean jartzea 30egunez, 7/1985 Legearen 49. artikulua arabera. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, web orrialdean eta udal iragarki oholean dagokion iragarkia argitaratutako da.

Jendaurreko epea amaiturik, alegazioen txostena egingo da, emaitza arautegian moldatu (egokia joko balitz) eta Udalbatzak behin betiko onarpena emango lioke. Alegaziorik ez balego, dokumentua behin betikotzat onartua joko da eta Ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egoitza elektronikoan argitaratuko da, 7/1985 Legearen 70.2 artikulua arabera.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera, Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Done Eztebe plaza 1 – 20180 Oiartzun 943 490 142 – www.oiartzun.eus

EUSKAL HERRIA 



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU9b1214fe-7c3e-4eb4-8096-e308ad74ecae**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022ID340001-Ebazpena pleno/Ebazpena pleno (OIARTZUNGO UDALA)